

JESUITEN ETXEAN

ESATARIA

Aurten, Jesusen Lagundiak bi urteurren ospatzen ditu: Xabierko Frantziskoren jaiotzarena, eta Loiolako Inazioren heriotzarena. Gure bi santu handiok gogoratzeko jesuiten lanera hurbilduko gara euren sorterrian, Euskal Herrian.

Egoitzak eta eskolak bisitatuz, maila txikian ezagutuko dugu, bert-bertatik, Lagundiak mundu guztian egiten duen hezkuntza-lan eta gizarte-lan ikaragarria. Hogei mila kidezik gora ditu ehun ta hogeita zazpi herrialdetan.

Jesuitekin ikasi du pertsona ospetsu askok. Haietako batzuek, ikasle-urteak gogoratuz, Jesusen Lagundiak eurengan izan duen eraginaz hitz egingo digute.

ALEJANDRO ECHEVARRIA

Jesuiten produktua naiz; hartakotzat daukat neure burua.

ALEX DE LA IGLESIA

Denok gara jesuitak neurri batean. Haiekin egondako guztiok daukagu jesuitaren edo apaizgaiaren ukitu hori. Neuk ere bai, onartu egin behar dut.

ESPIDO FREIRE

Neskato guztiok izan nahi genuen "misiolariak, eta". Batek, moja eta patinatzailea izan nahi zuen.

LOPEZ ITURRIAGA

Nik kartera autobusean ahaztuta uzten nuen, eta gero arineketan joan behar izaten nuen atzetik. Horrelaxe egin nintzen atleta: autobusen atzetik arineketan, kartera hartzeko.

KARTELA

Jesuiten etxean

JAVIER CASTILLO

Xabier elkarrizketan oinarritzen zen beti. Bere inguruko jendea ezagutzuz murgiltzen zen euren artean: Indian, Txinan... Zailtasunez ikasi zituen haien hizkerak, baina kultura arrotzokin bat egitea lortu zuen, Berri Ona gatazkarako arrazoia izan ez zedin kultura berriotan.

RUIZ DE GALARRETA

Gizon hau ez dago buruaz ulertzerik, bihotzaz baizik. Maitasunez gainezka zegoen beti, Jesukristoganako maitasun bizi-bizitik sortutako adiskidetasuna isurtzen zuen inguruan. Injustiziarik, ezjakintasunik ikusiz gero, han zegoen bera laguntzeko gertu, gau ta egun.

BAT

Nafarroako patroiarri eskaria egin nion, bete da eta orain neuk bete behar dut emandako hitza: Xabierreraino joan. Han beste eskari bat egingo diot.

IMANOL URIBE

Lehenengotan, Sartzeko Urtean nengoenean, misiolaria izan nahi nuela esan nion aitari oporretan. Ia-ia etxetik bota ninduen.

BI

Jainkoa hobeto ezagutzeko gogoaz egin dugu. Esperientzia berria izateko.

HIRU

Esperientzia berria.

JOAQUIN ACHUCARRO

Ezin nuen, ezin nuen hura neuretzat hartu. Misiolaria eginez gero, ezingo nintzen pianojolea izan!

LAU

Aukera ezin hobea da gazteekin bat egiteko. Tradizio handikoa da. Aurten mendeurrena da, gainera; eta jubileuko barkamenekin eta abar, aberasgarria.

BOST

Debozioagatik. Debozio handia diot santuari.

SEI

Ni Xabierren ezkondu nintzen. Momentu politak gogoratuko ditugu, seme-alabekin.

ZAZPI

Niretzat jesuiten sorrera da interesgarriena. Haien historia, hango inguruak, nola sortu zen dena. Horretan interes handia dut.

ZORTZI

Xabierrengan sinesten dudalako. Hauxe da nire berrogeita zortzigarren xabierada.

BEDERATZI

Erljio-sentimenduagatik, eta kirolagatik. Bada hainbat urte koadrilako guztiok gatozena, eta gustura etortzen gara.

HAMAR

Parisera ikasten joan eta gero misiolaria egin zela.

MIGUEL DE LA CUADRA

Xabierko San Frantziskok itzelezko zirrara eragin zidan txikitan. Beraz, garai hartan Molukei buruz idatzitako karta eta dokumentu guztiak hartu nituen, eta Tirol eta Entematera joan nintzen. Entemate portugaldarra zen, Tirol espainiarra, Moluketan. Eta karta guztiak irakurri nituen, Xabierko San Frantziskok handik Loiolako San Inaziori idatzitakoak.

CABASES

Izatez, hementxe hasi zen dena. Dorretxe honetantxe jaio zen, mila laurehun eta laurogeita hamaikan, Loiolako Iñigo Lopez. Eta hementxe, hogeita hamar urteko zela, Jaunaganatu egin zen.

Etxe santuko tokirik itzalgarriena, dudarik gabe, Iñigoren gaztaroan eraikitako otoi-gelatxo zahar hauxe dugu.

ANDRES URRUTIA

Gaur egun otoitza ez da komunikatzeko bide bakarra. Munduan egiten ditugun ekintzak ere, agian, Jainkoarekin komunikatzeko bidea izango dira, kristauak garela erakusteko. Baina otoitza inportantea da.

CABASES

Jaunaganatzeko prozesu hartan Iñigo sarritan etortzen zen otoi-gela honetara, otoitz egiteko.

CARLOS ETXEPARE

Lagundiaren baliorik handiena, arlo espiritualak alde batera utzita, Gipuzkoari eman dion ospea izan da. Enpresa-munduan aipatu ohi dugunez, Gipuzkoako multinazionalik handiena da, enpresa ereduakoa giza-jardunaren mailan.

CABASES

Hauxe da komunitateko jantokia. Hamazortzigarren mendean eraikia, Filadelfio Larganoren "Afarria" dauka aurrealdean.

IMANOL URIBE

Beste lagun bik eta nik komando-antzekoa egin genuen, gauzak apurtzeko: bonbillak, leihoak, kristalak, koadroak... jakitegiko gauzak hartu eta eskola-barreneko errekatxora botatzen genituen... Tira, barrabaskeria gogor-xamarrek.

CABASES

"Jantegi-aurrekoa" komunitateko jangelara sartzeko aretoari esaten diogu. Loiolako jantegi-aurrekoan zortzi ahoko iturria daukagu, eta horretan jesuiten irudiak daude, berri ona zabaldu behar zuten herrietako arropak jantzita.

MIGUEL DE LA CUADRA

Nik txikitan horrelako zalduntza-liburuak irakurtzen nituen. Ezaguna da Gustavo Dore-ren marrazkia, On Kixotek halako liburuak jaurtitzen dituen. Nire ustez, hamar-hamabi urte dituguneko irakurgaiak erabakigarriak ditugu umeengan. Salgari, Jules Verne, Esopo, Homero, Iliada, Odisea, Aristofanes... horiek denak irakurtzen nituen txikitan. Batzuk umei egokituak ziren, beste batzuk ez. Baina hortik sortzen da mundu berriak ezagutzeko zaletasuna.

CABASES

Loiolako santutegitik ehun metro eskasera Gogarte Etxea daukagu. Behar den guztiaz hornituta dago espiritualtasun-batzarretarako eta batzar pastoraletarako; bereziki gogo-jardunak egiteko.

IMANOL URIBE

Apaizek bikain prestatzen zituzten gogo-jardunak beldurra emateko. Gela ilun batean sartzen gintuen apaizak, argi txikitxo batekin, eta istorio ikaragarriak kontatzen zizkiguten. Gogoan daukat bat: aurreko urte batean, ikasle bat bekatu astunean joan zela lotara, eta gauean leihotik behera bota zuela burua. Ni sonanbulua nintzen, eta Meruelan, gogo-jardunetan egin genituen hiru egunetan, gauez eskua gerrikoaz oheari lotuta egiten nuen lo burua leihotik behera ez botatzeko.

ALEX DE LA IGLESIA

Ni apaizek ez ninduten torturatu txikia nintzenean; ez nuen zorte hori izan, hainbat arazo azaltzeko aitzakia emango zidan eta. Ez, hamazortzi urte nituela ezagutu nituen, eta jende jatorra zen.

CABASES

Arratsalde on, Pilar.

SOR PILAR

Arratsalde on, jauna. Zer moduz?

CABASES

Hementxe ba, arratsaldeko Iraurgi ibarreko hotzari eusten.

SOR PILAR

Orain ez du hotz handirik egiten, jauna.

CABASES

Zenbat gela daukazue hemen?

SOR PILAR

Zehazki, ehun ta hamabi, jauna.

CABASES

Erakutsiko diguzu bat? ... Goazen.

MIGUEL DE LA CUADRA

Gogo-jardunak garrantzi handikoak dira, jakina. Tibetekoek horiexen tankerakoak egiten dituzte, eta hor dago euren "Hilen Liburua". Ni Nepal eta Mongoliako komentu tibetar askotan egon naiz, eta mundutik harantzago egiten den bidaia da, behe-mundura. Gogo-jardunak gauza ona dira; bidaia horietan beldurra izaten dugu, infernua aurkitu, baina berdin dio: barrurako bidaia da eta geure burua ezagutzen dugu, horretan saiatzen gara. Helburu hori ez dugula galdu behar uste dut nik, geure burua ezagutzea.

SOR PILAR

Gogo-jardunak egitera datozenentzako gela da hau. Ohe batekoa da, hobeto bakartzeko. Xabierko Kristo gela guztietan daukagu. Eta Erromesaren Biblia, gogo-jardunetan ari denak Jainkoaren hitza eskura izan dezan beti, eta erraz.

CABASES

Gogo-jardunen bitartez Jainkoaren nahia ezagutzen saiatzen gara gutako bakoitzarentzat, Jainkoak berak dioskunari adi egonez. Eta Jainkoari adi jartze horri, kristauok otoitza deitzen diogu.

JOAQUIN ACHUCARRO

Lehenengo egunean lagun batekin joan nintzen, neu bezalako mutikotxoa. Eta beti ezezagunaren beldurrez: nolako umeak joango ziren, nolako irakasleak aurkituko genituen, onak izango ziren, gogorrak izango ziren, joko gintuzten ala ez. Orduan jo egiten zuten.

ESPIDO FREIRE

Ikaragarria izan zen. Berandu zela-ta nindoan. Channel tankerako trajea jantzi nuen, arrosa, eta poltsatxoa neukan; poltsa txikia. Gogo guztiaz sartu nintzen, takoi-hots sendoaz, tiki-taka, aurreraino, lehenengo lerroan esertzeko, apunteak hartu eta bizi berria hasteko gogoaz. Inguruan, eserita zeuden denak. Oso berandu zen, eta irakaslea neure atzetik zetorren; eta irakasletzat hartu ninduten denek.

MONICA FERNANDEZ

Bueno, bizkor-bizkor hasiko dugu eskola. Non? Ba herrialde batean. Eskolak herrialde hori aukeratu du aurten bertakoei laguntzeko, ideia on bat bultzatuz. Carlos!

Kolonbia da. Hementxe jarriko dugu: Kolonbia. ... Badakigu Kolonbian zer bultzatuko dugun, ze proiektu daukagun Kolonbiarako? Badaki inork zertaz den? Iñigo. ... Bakearekin eta elkartasunarekin zerikusia du; baina zehatzago. Ramon! ... Eskola. Ui, galduta gabiltza! Ez gara adi egon, ala? Nerea? ... Beharriaz daudenei lagundu. Hori ondo dago. Baina zehazki, aurtengo proiektua bidezko merkataritzari lotua dago.

Elkartasunik ez dagoenean, gauzak gaizki bananduta daudenean edo besteek baino eskubide gehiago dudala uste dudanean, gauzak banatzeko arauak zuzenak ez direnean, ba kasu horietan ez dago elkartasunik. Eta orduan, beste zer faltatuko da? Ba orduan bakerik ere ez da izango. Gogoan izan hori hurrengorako.

ESPIDO FREIRE

Nik, neskato txikia nintzenean, astronauta izan nahi nuen. Baina gogo guztiaz, ez zen momentuko erokeria. Galdetzen hasi nintzen, oraindik txikia nintzela, ea non ikasi beharko nuen eta abar. Baina ez zegoen aukerarik, atzerrira joan beharko nuen. Eta matematika asko ikasi, gainera. Matematikak, nire ikasgai madarikatua! Beraz, bide hori utzi eta poeta egitea erabaki nuen.

MIGUEL DE LA CUADRA

Txikitan, argi-argi gogoratzen dut, misiolaria izan nahi nuen. Hamaika urterekin. Mojen ikastetxe batean nengoen, Tuterako jesuitenean hasi baino lehen. Eta amari esan nion. Misiolari bat etorri zelako, Lobezain, Japoniari buruz hitz egiten. Eta nik, "Ama, misiolaria izan nahi dut". Meza-jantziak erosi eta meza ematen nuen. Amak esan zidan: "Amaitu ikasketak, eta gero ikusiko dugu." Eta oso ondo egin nuen. Itxaron.

MONICA FERNANDEZ

Adreilu guztiak idatzita egongo dira?

NIÑO

Ez dakit. Honez gero bai.

MONICA FERNANDEZ

Ikusiko dugu ba. Carlos, egunon. Zer moduz?

FRAILE

Kaixo! Hementxe ba. Horma aurrera doa.

(Off-ean, gainean hasita) Ekintza hau hamabost egunekoa da guztira, adreiluekin lanean. Sail bakoitzak bi adreilu erabili ditu; barruko zuloetan gure artean harresiak egiten dituzten jarrerak idatzi dituzte. Sail bakoitzak bere adreiluetan jarri ditu, eta sail guztien adreiluekin horma egin dugu. Hamabost egun pentsatzen; eta norbaitek esango du, "Horma ikustea ez da aski, kendu egin beharko dugu. Eta nola?" Ba begira adreiluen azalean ikasleek zer idatzi duten.

Begiratu horma horren sendotasuna, hitza eman aldatzen saiatzeko eta, ahal izanez gero, botatzeko. Horixe izan da eskema. Eta horrexegatik azkeneko saioa baloiaz botatzeko.

MARTINEZ DE LAHIDALGA

Hainbat urte direla uste dut nik, hogeit hamar urte edo gehiago, beharbada, hezkuntzan jesuiten bide hori nagusitu dela, elkartasunarena, gizartearekiko ardurarena. Pertsona onak izatea ez da aski, ezta? Beharrezkoa da solidarioak izatea. Arrupek zioen pertsona hura, besteei zerbitzatzea helburu duen ikaslea. Garai haien nostalgia dugu? Ez dugu izan behar, bai zera! Lan ederra dela uste dut nik gauzak diren direnean onartzea, datozen datozenean. Guretzat, jesuiten ikuspegitik, hau ere Jainkoaren garaia da. Dena gaizki dagoela diote, baina Jainkoaren garaia da. Eta belaunaldi ederra dugu oraingoa ere.

JUAN IGNACIO VIDARTE

Hainbat ekintza izaten genuen, kirolaren inguruan batez ere. Bat tradizio handikoa zen: Preu-koek jokatzen zuten partida, zangoak lotuta, eskolako txikien kontra. Eta horrelako gauzak, ezta? Gauza bitxiak ziren. Eta eskolako patioa, eskolako bizitza guztiaren erdiko gunea nolabait, aldatu egiten zen bat-batean: jende berria etortzen zen, kanpoko jendea eta abar.

JOAQUIN ACHUCARRO

Partida jokatu genuen, A sailekoek B sailekoon kontra. Normalean jokatzen ez genuenak ginen gu, kaxkarrenak. Partida hura bi eta huts irabazi genuen, eta neuk sartu nituen bi golak.

MARTINEZ DE LAHIDALGA

Hamaika urte egin nituen hemen zuzendari lanetan. Urte politak izan ziren, politika bol-boolean zegoen garai hartan, joan-etorri handia zegoen.

ANDRES URRUTIA

Orla egiteko astirik ere ez genuen izan. Oso mugimendu bizkorreko garaia zen. Guk frankismoaren azken urteetan hasi genuen karrera, eta gure azken ikasturtea Franko hil zenekoa izan zen. Orduan, bat-batean etorri zen aldaketa; eta han geunden gu,

karrerako bosgarren urtean, eta gure erreferentzia-mundu guztia aldatuta, antolamendu guztia. Errealitate berria zetorren, zeharo ezberdina, eta horren aurrean erreakzioa egin behar genuen. Askoz gehiago legelaria izanez gero, egun-egunean egon beharrekoa gizarteko gauzetan.

MENDEZ-ONA

Elementuak natura guztiaren oinarrian daude, kosmosaren oinarrian. Eta, jakina, kosmosa Jainkoak egin da. Kosmosean ulertzen ez dugun gauza miragarri asko dago, eta kimikari eta fisikariak gogor aritzen gara arlo horretan. Baina gu, gainera, jesuitak garenez, zera irakasten saiatzen gara: ez zientzia naturalak bakarrik, baizik eta naturaz gaindikoak. Horiek dira inportanteenak.

LOPEZ ITURRIAGA

Bai, gogoan daukat batxilerreko bosgarren edo seigarren urtean joan ginela gure lehenengo gogo-jardunetara. Portugaletera, uste dut. Eta itzelak izan ziren, bai. Egun gogoangarriak. Gehienok zurrumuruak entzun genituelako joan ginen, sexu-heziketaren inguruko hitzaldiak izango genituela. Galderak egin behar izaten genituen, eta gogoan daukat nire galdera tamalgarria, baina urte haietako giroaren adierazgarria. Nire galdera, gogo-jardun haietan, hauxe izan zen: "Zer gertatzen da Suedian?" Nik, hamalau urterekin, suediarrei buruzko gauzak entzuten nituen, eta jakina. Jesuita galderak kopiatzen ari zen, eta harrিতa zegoen. "Zer gertatu da Suedian? Zer gertatu da ba? Zer?" Gero ulertu zuen, eta azaldu zigun herri hartan sexu arloan irekiagoak zirela gu baino. Baina horixe izan zen nire galdera gogo-jardun haietan.

MANSO

Orain dela urte bi edo hiru, Latinoamerikako probintziales, hainbat probintziales, laguntzaileak eskatu zituzten hango ekintza batzuetan laguntzeko; jubilatuek ere egin zitzaizketen zereginetan. Horrexek animatu ninduen; eta jakinik ez nindoala gazteen moduan, nire bizitza guztia han egiteko, garai batean laguntzeko baizik.

MARTINEZ DE LAHIDALGA

Jesuiten komunitateetako bizimodu apala bizi dugu. Lehenengo kide haiek lortu zutenari eman behar diogu aurrekotasuna: adiskideak izan Jaunarengan, jakinik komunitateak babesten gaituela, eta komunitateak bidaltzen gaituela lan horietara.

ALEX DE LA IGLESIA

Gogoan daukat, behin, "Azken tangoa Parisen" eman nahi genuela. Une hartan bakarrik sentitu ginen benetan hezikaitzak. Dena ondo antolatuta zegoelako, eta gainera jatorrak ziren. Baina "Azken tangoa Parisen" eman nahi genuen, eta bat-batean esan zuten: "Ez, hori ez dugu nahi", eta kendu egin ziguten. Orduan

kazetariak jakin zuten, eta hara Espainiako Telebistan non ateratzen gaituzten, telediarioran! Sufritu egin genuela, jesuiten tortura intelektualala jasan genuela "Azken tangoa Parisen" debekatzeagatik. Heroiak izan ginen egun pare batean; gero denek ahaztu zuten. Gainera baimena eman ziguten, hainbat aldiz bota genuen, eta kito. Horixe izan zen gure matxinada, 68ko maiatza, nahiz eta gero lotsagarria iruditu.

JOSE MANUEL AÑON

Jose Manuel Añon naiz, Jesus Obrero Institutu Politeknikoko zuzendaria. Jesuita. Nire lana zentro hau zuzendu, gidatu eta aurrera eramatea da, orain dela hirurogei urte baino gehiago hasi zuen bide honetan. ... Inmigrazioa dela-eta, beste herrialde batzuetako gazte asko daukagu. Denetik dago, baina latinoamerikarrak batez ere. Eta Magrebekoak.

ANDRES URRUTIA

Nik beti pentsatu izan dut misioa, nire misioa, hementxe dagoela. Eta gainera... bueno, alde horretatik jesuitek bide asko erakutsi zizkiguten, ikuspegi bat baino gehiago. Bide bakarra ez zen jesuita misiolariarena, urruneko herrixkan irakatsi eta gero, gauean, etxerakoan, tigreaki aurre egin behar dionarena. Ez. Behin aita Llanos ekarri ziguten, adibidez; hark beste mota bateko lana egiten zuen El Pozo del Tío Raimundon. "Hauek ere gure misioak dira", esan ziguten. "Eta munduan beste batzuk ere izango dira".

JOSE MANUEL AÑON

Pertsonaren elkarlanerako joera hori lantzeko aukera ere eskaintzen dugu, borondatezko lanetarako interesa duten ikasleentzat. Euren burua besteen zerbitzuan jartzeko aukera, elkarlanean aritzeko, fedea taldean bizitzeko.

SAIOA RODRIGUEZ

Saioa Rodriguez naiz. Hementxe ikasi dut azken lau urteotan, Produktu Elektronikoen Garapenaren Zikloa egin dut, eta aurrean bekaduna naiz.

JONATHAN MARTIN

Abendu hasieratik ari naiz lanean proiektu honetan, arratsaldeetan ere bai. Sarbideetarako segurtasun-sistema da. Ezkutuko zenbakia sartzen dut, eta zuzena bada ongietorria emango dit, ateak irekiko ditu eta argiak aldatu. ... Arratsaldeetan eskolan antolatu duten boluntariotzara etortzen naiz; hiru urte daramatzat hor. Eta eskolan, zortzi egin ditut.

ALEX DE LA IGLESIA

Ni benetako ikasle kaskarra nintzen. Filosofiako azken azterketan Unamuno galdetu

zidaten; eta nik banekien, hartaz hainbat irakurri nuen, eta bost minutuz ondo hitz egiteko dokumentazioa baneukan. Hala ere, aztertzaileen aurpegietan aspertasuna ikusi nuen, gogaitasuna: nik zerbait esan nahi nuela, alegia, eta ez nekiela zer. Oso tristea izan zen.

LOPEZ ITURRIAGA

Nik, noizean behin, eutsi ezinezko barre zoroa izaten nuen. Behin eskolan gertatu zitzaigun: mahaiko laguna eta ni barrezka hasi ginen. Maisuak isiltzeko esan, eta gu berdin; belauniko jarri gintuen, eta gu berdin. Azkenean ileetatik edo ahal zuen tokitik heldu eta kanpora atera gintuen, haserre bizian. Eta gu barrezka ito-beharrean. Astindua gorabehera primeran pasatu nuen aldi bakarra huraxe izan zela uste dut nik.

ALOÑA

Aloña dut izena, eta Alboan izeneko jesuiten fundazioan egiten dut lan. 1996an sortu zen. Herrien garapenaren eta elkartasunaren alde lan egiten duen Gobernu Kanpoko Erakundea da. Ni Hezkuntza eta Boluntariotzaren Sailean nago.

Hiru talde egingo ditugu, elkarrengandik bananduta, eta kultura-artekotasunari buruzko collageak egin behar ditugu. Proba hau collagerik onena zein taldek egiten duen ikusteko izango da.

Jesus Obrero Ikastetxeak urteak daramatza boluntariotza bultzatzen ikasleen artean. Guk formazioa ematen diegu boluntarioei.

NESKA

Mesedez, aldizkari-txatal bat emango diguzue?

SAIOA

Bai, oraintxe bertan. Lasai.

BAT

Itsatsi mihiarekin!

NESKA

Kola gehiago ez dago?

JONATHAN

Kolarik ez badago beste zerbait erabili beharko dugu.

NESKA

Kolarekin izan behar du.

ALOÑA

Denbora amaitu da. Zein taldek irabazi duen ikusi behar dugu.

MUTILA

(off) Eurek.

ALOÑA

Zergatik?

MUTILA

(off) Kola daukatelako.

ALOÑA

Zer moduz dinamika honekin?

BERDEA

Gaizki.

ALOÑA

Gaizki, zergatik?

BERDEA

Ni gaiztoa ez naizelako!

ALOÑA

Oraindik kola ez duzu askatu.

CHINO

Kontrola zeuk daukazula ikusten duzu. Zuk nahi ez baduzu, ez duzu ezer egingo eta besteek ere ez. Hori kontrola da, nagusitasuna.

ALOÑA

Zuen ustez, zein jarrera izango da egokiena taldeak gauzak lor ditzan, gauzak era onean lortzeko?

JONATHAN

Aurreko piezari bakarrik ez diozu begiratu behar; atzekoari ere bai. Nire erreginarekin kontra egin dezakezu; mugitzen ez badut, zapla! Ee, neure txanda!

SAIOA

Non dago gixontxoa? Non dago?

ESPIDO FREIRE

Nik unibertsitateari ideia bat eskertu behar diot, beste guztien gainetik: jakintza baliagarria dela. Unibertsitatea amaitu eta gero, nik zera sentitzen nuen argi-argi: nire jakintza guztia, gaitasun intelektual guztiak eta abar jendearen alde, munduaren alde ez erabiltzea, alferrik galtzea izango litzatekeela. Beste batzuek, euren hitzekin, bekatua dela esango lukete. Beraz, niretzat fikziozko literaturak badauka zentzua istorioak kontatzeko, eta mundua aldatzen saiatzeko istorio horien bidez. Baina ez-fikziozko literaturak nolabaiteko konpromiso etikoa izan behar du norbere oinarrizko ideologiarekin.

ALOÑA

Eman bakarrik inoiz ere ez dugu egiten, ezta? Hartu ere beti hartzen dugu, batzuetan ematen dugun baino gehiago. Kontua ez da "norbaitek barrua hutsik daukala eta bete egin behar dugula", ez. Pertsonak direnez, lagundu egin behar diegu hazten.

ESPIDO FREIRE

Unibertsitatean geure lagun kutunagoak izaten genituen, erromantzetxoak. Halakoren bat amaitzean lur-jota geratzen ginen, eta lagunarengana joan behar izaten genuen.

CARLOS SOBERA

Mundu honetan sartuta ibiltzeak ez dit lagundu ligatzen. Alderantziz, traba handia dela uste dut.

ESPIDO FREIRE

Berreskuratzea planifikatu beharra zegoen. Norberari, lagun bati, beti gertatzen zitzaion norbaiti. Edo bestela, liluratze-prozesua berriro hasi beharra zegoen. Maitasun-bizitza nekagarria zen.

ALEJANDRO ECHEVARRIA

Norbait konkistatzeko ehunka ordu eta milaka truku behar izaten genituen.

IDOIA ZENARRUZABEITIA

Nesken taktikarik ezagunena begiko genituen mutilei zerbait azaltzeko eskatzea izaten zen, nahiz-ta guk hobeto jakin. Hori ez zen kontua. Eurek azaldu behar ziguten.

ALEX DE LA IGLESIA

Ez genuen lortu. Nik neska batekin ere ez nuen ligatu. Behin bai, kasualitatez. Ni neska zaragozarrez mozarrotuta nindoan, eta orduan bai, ligatu nuen. Neska batek esan zidan: "Liluratu egin nauzu". Eta nik, "Benetan eskertzen dizut", erantzun nion.

JAIME ORAA

Deustuko Unibertsitatean gaude. Jesusen Lagundiaren Goi Hezkuntzarako Erakundea da, mila zortziehun eta laurogeita seian sortua talde bizkaitar baten ekimenez. Eurek eskatu zioten Jesusen Lagundiari unibertsitate hau ezartzeko. Oinarrizko helburua gazteen osoko heziketa da bertan ematen diren titulazioetan, gogoan izanik profesional gaituak eginda irten behar dutela, bakoitzak bere karrerari; baita pertsona arduratsuak ere, oinarrizko balio sendoekin.

IDOIA ZENARRUZABEITIA

Xabier Arzallus. Xabier Arzallus. Zuzenbide Politikoko lehenengo urtean eztabaida biziak izaten genituen haren eskoletan. Gero azterketa arautegi ofizialari jarraituz jartzen zigun, baina tira. Hirurogeita hamaseian bera Diputatuen Kongresuan zegoen eta eskola ematera etortzen zen. Helduaz batera hasten zen konstituzioari buruzko eztabaida. Oso interesgarria zen.

MIGUEL DE LA CUADRA

Euskaldunak Amerikan beste espainiarrak baino errazago sartu zirela uste dut nik, Andaluziakoak edo Extremadurakoak baino errazago, bi hizkuntza eta bi kultura zeuzkatelako. Hirugarren kulturarekin topo egitean, hobeto konpontzen ziren.

LAURA GOMEZ

Latinoamerikan Giza Baliabideak Formatzeko UNESCO Katedra proiektu handi batetik sortu zen. Deustuko Unibertsitateak parte hartzen du, Latinoamerikako Jesuiten Unibertsitateen Sarearekin batera. Katedra honek irakasleen prestakuntza bultzatu nahi du Latinoamerikako unibertsitateotan erakundeak eurak sendotzeko, baita Latinoamerikako gizarte guztia ere. Horretarako, Lagundiko unibertsitateetako irakasleei bekak ematen dizkiegu eta Deustura etortzen dira doktoretza egitera. Gure asmoa irakasleok euren unibertsitateetara itzultzea da, prestakuntza honen bitartez haietako hezkuntzaren kalitatea hobetu dadin.

FERNANDO VERGARA

Alberto Hurtado Unibertsitateak, jesuitena izanik, ardua handia du gizarteko gaietan. Ikasleetaz arduratzen da, baina inguruaz ere bai: giza eskubideak, migrazioa, gazteria, pastoralara... Alde horretatik, unibertsitatea ez da profesionalak prestatzeko irakaskuntza zentroa soilik; gogoetarako zentroa ere bai, kritika eta argitalpenak egiteko...

IMANOL URIBE

Euskal Zinemaren Astea antolatu zuten Moskun. Itzultzaileak esan zidan eguna emateko modurik onenetakoa Eisensteinen museoa ikustea izango zela. Museoa Eisenstein Moskun azkenekoz bizitako etxea da, langile-auzo batean. Hantxe zeuden bere liburu guztiak eta abar, eta haren miresle batek zaintzen zuen: atzerritarrik joanez gero, berak erakusten zien pisua. Ba nik han eman nuen arratsaldea, gizon harekin eta itzultzailearekin. Tea eskaini zigun, eta joateko geundela esan zidan: "Eisensteinek beti dauka mezu bat hona datozenentzat. Nik badakit zein den bere mezua zuretzat". Liburu artean bilatu eta Eisensteinen testu bat atera zidan, jesuiten gogo-jardunak Stanislawskiren ariketekin konparatuz. Eta Loiolako gogo-jardunen gainean pelikula egingo nuela esan zuen. Harrituta nengoen. Nola jakin zuen hark jesuitekin harremanak izan nituela?

KARTELA

Alberto Nuñez. Jesuita.

ALBERTO NUÑEZ

Pedro Arrupek, bitxia badirudi ere, ez zuen Deustun ikasi. Bilbotarra zen baina ez

zen Deustura joan; Madrilen ikasi zuen Medikuntza. Bere lana izan zen, Vatikanoko Bigarren Kontzilioaren ondoren, eta Lagundiko buru zela, Jesusen Lagundia kontzilioako aginduetara moldatzea.

MIGUEL DE LA CUADRA

CELAM delako kongresuan egon nintzen Medellinen, 68an, Arruperekin. Oso apezpiku-batzar inportantea; nire ustez hantxe sortu zen, nolabait, askapenaren teologia. Hantxe egon zen Tuterako nire lagun bat, zahartxoagoa; Ellacuria, El Salvadorren hil zutena... Garrantzi handikoa dela uste dut Amerika guztian erein duten hazi hori.

ALBERTO NUÑEZ

Eragin nabaria izan du bizitza erlijiosoan eta, noski, Lagundian. Gaurko lagundia aita Arruperena da, kontraesan eta muga guztiekin; eta, agian, aita Arruperen mailaraino ez da helduko. Bera aurretik zihoan, eta haren kalitateak gure barruan daukagunik onena eskaintzera deitzen digu.

KARTELA

Carlos Sobera. Aktorea eta aurkezlea.

CARLOS SOBERA

Unibertsitatera heltzean badirudi, bat-batean, kontzientzia soziala eta politikoa hartzen duzula. Garai hartan, 79-80an, Euskal Herria eta Espainia aldaketa garaian zeuden. Deustuko Unibertsitatea itxi egin zuten mobilizazio politikoak egon zirelako. Nik gogoan dut, kurtzoko ordezkaria egin ninduten lehenengo aldian, ardura handi bat neukala: Euskal Herriko arazo sozial eta politikoen aurrean jarrera zehaztea.

Baten batek pentsatuko du jesuitek isildu nindutela, edo irakasleek; baina ez. Lagunak izan ziren. "Aizak, nora hoa?" esan zidaten. "Hau unibertsitatea duk, baina Euskal Herrian gaudek. Norbait hil ala ez, ez dut hire arazoa ez nirea". Eta nik, neurekautan: "Izorra hadi!".

Beraz ikasteari ekin nion, neureari, beste guztiek egiten zuten antzean. Ez zirudien unibertsitatea eztabaidarako lekua zenik, ezta kontzientziatzeko ere. Baina ikasleengatik, nire adinean mugimendu politikoetan militatzen zutenengatik. Ez zen ez jesuitengatik ez ikasleengatik.

EDUARDO RUIZ VIEYTEZ

Institutuak gizartearekin elkarriketa bultzatu nahi du, gizartearen zerbitzuan jarri. Beraz, gizarte-sentsibilizaziorako ekintzak daude, eta guk esku hartze zuzeneko ekintzak deitzen ditugunak. Hauek giza-eskubideen aldeko ekintza zuzenak dira,

geure gizartean edo beste batzuetan, hegoaldeko herrietan, kasu; elkarlanerako edo zuzeneko ekintzarako proiektuen bidez egiten da. Horrez gain unibertsitateko jardun klasikoa daukagu. Gure kasuan, graduatuondoko irakaskuntzara mugatuta.

CARINA

Ni familiako tradizioari jarraituz sartu nintzen arlo horretan. Aitak basogintzan egiten du lan, eta munduko herrialde askotan bizi izan nintzen txikitan: Afrikan, Asian eta abar. Aitaren antzeko lanari ekin nahi nion, eta antropologia ikasi nuen, era askotako kulturak ezagutu eta inguru; baina gauza praktikoagoa nahi nuen. Orduan Laguntza Humanitarioa ikasi, eta nire lehen esperientzia hamazortzi urterekin izan nuen: Indiara joan nintzen boluntario, Kalkutako Ama Teresaren umezurztegian lan egiteko.

JON

Laguntza humanitarioaren arloan, eta garapenerako laguntzan, borondate handia dagoela ikusten dut nik; baina beharrezkoa dela profesionalizatzea. Alde horretatik, mundu horiek ikuspegi ezberdinetatik aztertzeke aukera eskaintzen zaigula uste dut, prestakuntza profesionalagoa izateko eta, ondorioz, borondateaz baina ondo lan egiteko, hobeto lan egiteko.

HEIDI

Nikaraguarra naiz, garapen bidean dagoen herrialdekoa. Halako lekuetara Europatik heltzen dira beti garapen proiektuekin edo laguntza humanitarioarekin. Ertamerika beti larrialdi egoeran dagoen eskualdea omen da. Eta nik pentsatu nuen, bueno, arlo horretan prestatuko naiz. Eta Nikaraguan, bertako egoerarekin, askoz hobeto lagundu ahal izango nuke hemen ikasitako guztia han erabilita. Gure herrira heltzen den laguntza programatzen eta planifikatzen jakingo nukeelako. Hori ezinbestekoa da.

CARLOS SOBERA

Behin bakarrik gertatu zen. Behin kopiatu behar izan nuen. Derrigorrez. Eskolako inozoa izango nintzen, egin ez banu.

ANDER VILARIÑO

Lehenengotan, eskoletara beti ez nintzen joaten eta, eskarmenturik ez neukan, inozotxo nintzen. Lagun askok beste urte batzuetako azterketak izaten zituzten, eta horiek behar-beharrezkoak dira gainditzeko. Ni bigarren urte amaierara arte edo, ez nintzen horretaz ohartu.

CARLOS SOBERA

Bi ebaluazio zeuden, eta gero azkena. Nik orduan bi bikain neuzkan, eta noten batezbestekoa egiten zen. Azken azterketan irakasleak hiru galdera egin zizkigun; nik bi nekizkien eta bat ez. "Kaka zaharra, 6 aterako dut" pentsatu nuen. "Eta batezbestekoa, 8. Ez da bidezkoa."

IDOIA ZENARRUZABEITIA

Ez, ni ez naiz kopiatzekoa izan. Ingurukoekin gauzak aipatu bai, egiten nituen, gaia nola planteatu eta abar. Baina ez dakit hori kopiatzea den. Nik ingurukoekin aipatzen nuen.

CARLOS SOBERA

Eta hiru galdera haiek harrিতuta utzi gintuzten. Ikasgai erraza zen, bigarren mailakoa, Zuzenbideko bosgarren urtean. Egundoko nahastea sortu zen! Nik banekien gaindituko nuena, baina asko huts egingo zutela-ta zeuden. Nire lagun bat zutitu eta irakaslearengana joan zen, azterketa hura jartzeko eskubiderik ez zegoela-ta. Nik, aprobetxatuz, liburua hartu, galdera bilatu, gogoratu eta idatzi egin nuen. Bikain. Bestela oso ongirekin geratuko nintzen eta ez zen bidezkoa. Gainera denek kopiatzen zuten. Eta nik: "Ez, ez, beti zintzoa ez naiz izango. Beti, gaur izan ezik."

ETXEVARRIA

Gregorio IXgarrena laurogei urterekin tronuratu zuten. Eta legegizona eskatu zuen; denok ezagutuko duzue: Peñaforteko San Raimundo. Ez zaizue ezaguna egiten? Ez? Legegizonen patroia da. ... San Pedro apostoluaren bidetik, berriro gogoratuko dugu gaur Pedro elkartasunaren, elizaren batasunaren bultzatzaile zenez. Eukaristia hasteko, "Más allá" (Harantzago) kantatuko dugu.

LODIA

Zein da dokumentua? Primo Deum. Primo Deum. Ba Juan Bataiatzailea ez bada, ez dakit nor izango den.

ZURIA

Bai, bai, nik ulertu dut, baina tira...

GORRIA

Jo! Txarragorik ezin izan duzu asmatu?

LODIA

Bueno, baina egia da, ala ez?

ETXEVARRIA

Hau ikasleen etxea da. Heziketa garaian dauden jesuitak dauzkagu; nobiziatuaren ondoren filosofia ikasten dute, beste batzuek teologia ere bai; hauek dagoeneko euren heziketako beste etapa batzuk gainditu dituzte. Bueno, ba horixe da gure komunitatea une honetan.

CRISTOBAL MARTINEZ

Iruñean kazetaritza ikasi eta laurogeita hamabian bukatu nuen. Orain dela lau urtera arte irratan egin dut lan, eta duela lau urte Lagundian sartu nintzen. Lehenengo bost urteetan Iñaki Gabilondoren saioan egon nintzen, sei urteetan. Eta beste laurak Nazioarteko Sailean.

Erredakzioan lan handia zegoen, baita gobernu-buruaren nazioarteko bidaien jarraipena egiten, eta errege-erregina. Beste bidaia asko gerra-tokietara egin behar izan ditut: Kosovora, Bosniara, Ekialde Hurbilera... eta hondamendiak gertatutako herrialdeetara, Afrikara eta abar, irratiko korrespontsala nintzenez.

Infernuan turista nintzela esaten nuen nik, baina turista bakarrik; aldi baterako joan eta gero lasai asko itzultzen nintzen etxera. Nire bokazioan eragin handia izan dutela uste dut halako tokietan bizitako esperientziek. Joan eta misiolariak aurkitzen dituzu beti, euren bizitza lan horregatik emateko gertu; harritu egiten ninduen haien barruko indarrak, haien gogo onak halako une larrietan. Ni bakarrik ez, komunikabideetako beste lagun guztiak ere txundituta geratzen ziren. Nire bokazioa, ba, neurri handi batean misiolari haiei zor diet, halako jendearen lekukotzari. Bizitzako gauza inportanteak zeintzuk diren erakusten digute, lehentasuna zerk daukan. Ernesto Sabatok zioenez, "gizonok utopian bakarrik kabitzen gara". Misiolariek horixe erakusten digutela uste dut nik, beste era batera bizitzea badagoela, mundu hobea amets eginez, anaikorragoa. Eta euren eguneroko lanarekin erakutsi egin daitekeela; egiten dutelako, eta Jainkoa eurekin daukatelako.

Hau Donostia Herri Irratia da, Radio Popular de San Sebastian. Loiola Kateak lau irrati emisore dauzka. Hau kate generalista da: albistegiak egiten ditugu, magazineak, eta abar. Une honetan goizeko albistegian daude, 7etatik 10etarakoan. 9etatik 10etara solasaldia daukate Ramon Ibeasekin.

Egunon, Txema! ... Zer moduz?

TXEMA AUZMENDI

Egunon! ... Oso ondo. Eta zu?

CRISTOBAL MARTINEZ

Oso ondo. Aizu, Forum Deustoko hitzaldi-zikloa eman behar dizut, ea zure saiorako balio dizun. Atzo pasatu zidaten eta gauza interesgarriak badaude. Zertan zabilta orain?

TXEMA AUZMENDI

Etxera noa. Saioa prestatu dut eta etxean zeregin batzuk dauzkat egiteko.

CRISTOBAL MARTINEZ

Bihar hitz egingo dugu, orduan.

TXEMA AUZMENDI

Bai, bihar arte. Agur. ... Loiolaetxea bi giza-taldek osatutako komunitatea dugu. Bat, oinarriko komunitatea da; gaur egun lau jesuitak osatzen dugu, apaiz batek, bi emakumek eta bi bikotek. Denok gaude proiektuan.

Denok ez gara hemen bizi, bestela gonbidatuak hartzeko lekurik ez genuke izango. Horiexek osatzen dute bigarren taldea, eta bazterketa-egoerekin zerikusia dute. Gu pertsona horiek integratzen saiatzen gara, bakoitza bere ingurunean. Hamar bat pertsona dira, kartzeletatik datozenak. Delituek ez digute axola; hemen norbait hartzeko neurria ez da zer egin duen, droga hartu edo saldu, ostu... ez. Ez digu axola. Inork ez duela hartu nahi ikusten dugu guk, familiarik ez daukalako, edo urrun daudelako, edo nahi ez dutelako.

MARTA

Astelehenetik ostiralera egiten dut lan hemengo beste lagun batzuekin, etxekekin; batez ere etxean hartuta daudenei laguntzeko. Nire senarra ere etortzen da etxean laguntzera, baina boluntario moduan, eurekin denbora-pasarako, jolasetarako eta abar.

TXEMA AUZMENDI

Bueno, hemen gela ederra daukagu, ikusten duzuenez; etxeke ederrena. Etxeko nukleoa hementxe dagoela esango nuke.

JOSE ELLACURIA

Jose daukat izena, Ellacuria deituraz. Zerk bultzatu nauen Loiolaetxea proiektura? Ba obedientziak. Nik ez nuen etortzeko asmorik, baina probintzialak esan zidan: "Begira, han zu joatea nahiko lukete, eta nik postu hori eskaintzen dizut". Eta nik

hemen egiten zuten lanak merezi zuela pentsatu nuen. Eta merezi du, ez lehen Txemak azaldu duenagatik bakarrik, hau da, baztertuta daudenak integratzeko; baizik eta oinarrizko komunitateak egituratuta egon daitezen, eta Jainkoaren esperientzia izan dezaten.

TXEMA AUZMENDI

Ba hemen, ikusten duzueenez, beltz-beltz eginda ageri dira denak. Gizonak eta emakumeak dira, eta bat bakarrik dago garbirik: Norma, moja kolonbiarra. Urtebete egin du hemen gurekin, oraintsu arte egon da, proiektuan parte hartzen. Besteak gonbidatuak dira, eta geure taldekoak. Yesako urtegian daude, Nafarroan, Xabiartik hurbil, Zangozatik hurbil. Han ur epelak daude, lokatza eta abar. Lokatzez zikindu ziren goitik behera. Halako xarma berezia du, hemen ez baitakigu nor nongoa den, ze kolore daukan... ez dio axola. Beltzak dira denak. ... Hemen, Josek eta Itziarrek prestatuta, mahaiaren inguruan 8-10 lagun elkartu eta eukaristia ospatuko dugu.

JOSE ELLACURIA

Hemen honelako aulki txiki bi jartzen ditugu, hor beste aulkiak dauzkagu, eta mahaiaren inguruan jartzen dira. Hamar-hamabi bat elkartzen gara. ... Hau sakristia da. Hemen kopoia daukagu, Latinoamerikakoa. Neuri oparitu zidaten, orain dela urte bi, El Salvadorren. Eta patena, hau ere estilo berdinekoa. Denetik daukagu, Latinoamerikatik ekarritako gauzak. Eta hemen maitasunaren ideograma jarri dugu. Orain dela bost mila edo sei mila urte, txinatarrek pentsatu zuten: Nola idatziko dugu "maitasuna"? Eta honelaxe egin zuten. Goiko atal honek, lau puntutxo eta bi marratxoek, zailtasun-aldia esan nahi dute, ekaitz-aldia, euria. Hurrengo honek teilatuaren antza dauka, hau teilatua dela sumatu dezakegu. Eta bihotza, gutxi gorabehera bihotza egiten dugu, eta honek adiskidetasuna esan nahi du. Beraz, zailtasuna dago, etxearen teilatua eta barruan bihotza. Beraz, nola adierazten dugu maitasuna? Ba ito-beharrean gaudenean, zailtasunak ditugunean, norbaitek hartzen gaituela, etxea aurkitzen dugula, eta han adiskidetasuna. Hona etorri zen batek "Zer da hori?" galdetu zuen. Eta azaldu egin nion, "Honek haxe esan nahi du, honek haxe". Eta ederto azaltzen du zer izan nahi dugun, ezta? Denok gara "ez-bi", bat ez garelako, baina bi ere ez, gauza komun bat badaukagu eta. Eta txineraz "ez-bi" garela esaten dugu, ez gara bat, baina bi ere ez. Zerbaitek lotzen gaitu, eta denok daukagun gauza komun hori, ba Jainkoa geugan dagoela da, nahiz-ta ikusi ez.

HOGEI

Ba apurtxo bat berriztatzeko. Haxe da bizitza guztia gain-gainetik begiratzeko eguna. Urtero egitekoa.

HOGIIBAT

Gaztelua hor dagoela ikusi dugu, eta orain denok pozik.

BIHOGEI

Zortzi lagun gatoz Lerinetik. Ostiral goizean irten ginen, San Martinen lo egin, atzo Zangozan eta gaur Xabierreraino. Gero etxera joango gara.

JOSE ELLACURIA

Gu, garai hartan, ni berrogeita hamaseian joan nintzen, betiko gindoazen. Inoiz ere ez itzultzeko.

MISIONERA

Bihotzez eskertu nuen hango jendearen harrera, hain abegitsua. Denek esaten zidaten: "Amatxo, zuk Espainian utzi duzu familia. Orain geu gara zure familia."

MANSO

Ekuadorrera itzuliko naiz, hainbat urte hemen egin eta gero. Joan noa; eurek esango didate zertarako behar nauten, edo nik han zertan lagun dezakedan.

BIMISIONERA

Beti esaten nion amari: "Xabierko San Frantzisko joan ez zen lekuraino helduko naiz: Txinara". Afrikara ere joan nahi izango nuen, baina Txinatik hurbil geratu nintzen, Hego Korean. Albo-alboan dago.

ALBERTO NUÑEZ

(Jatorrizkotik) ... Hitz horiek agurra dira txineraz, eta esan nahi dute: "Familia handia, ondo". Horrelaxe agurtzen da taldea, jende multzoa.

ALOÑA

Hiru urte t'erdi egin ditut Venezuelan. ALBOANeko Pedro Arrupe boluntariotzako programaren barruan joan nintzen, eta lehenengo bi urteetan Fedea eta Alaitasuna proiektuan egon nintzen, zentro komunitario batean.

HEIDI

Asko gustatu zait. Eta batez ere Xabierren bizitza jakitea. Gure bizitzako betebeharra aurkitzen saiatzearen antzekoa da. Horixe daramat neurekin. Bueno, Xabierrek bazekien bere betebeharra zein zen; orain neuk galdetu behar diot neure buruari nirea zein den.

JAVIER CASTILLO

Nire ustez, guretzat, misioetan bere bideari jarraitzen diogunontzat, Jesusen proiektuaren barruan Jesukristoren Erreinua eraikitzen saiatzen garenontzat, hortxe dirau Jesusek liluratutako gizon hark. Jesus bihotzez maite zuen gizona dugu, eta Jesusengan batera, munduko behartsuak.